



# Danena-Olaederra taldeko pultsulari gazte guztiak ariko dira Espainiakoan

**VILLABONA** ▶ Euskadiko Txapelketa jokatu zuten seirek lortu dute txartela, puntuazioari esker ▶ 6



Asier Gallego zizurkildarrak 96. urtean jaiotakoan artean lehenengo postua lortu zuen. N. URBIZU



E. EZEIZA

## Naturarekiko errespetua sustatuz, Zuhaitz eguna

**TOLOSA** ▶ Atzo egin zuten Tolosako Lehen Hezkuntzako ikasleek, Zuloaga Txiki ingurumen eskolaren eta Udalaren eskutik ▶ 7

**LEABURU** ▶

## Ttonttorpe frontoiko hormak kolore biziaz margotuta

Arkaitz Uranga eta Eider Epelde ibartarrek egin dute lana ▶ 4-5

**Sorbaldak 60€ saioko**

**Axilak + izterondoak 100€\* saioko**

**Promozio Berezia 2/15etik 3/15era**

**FOTO depilazioa**

**Shuyana Edergintza**  
Eskolapiotetako Lorategiak, 3 - 1A  
TOLOSA • Tel.: 943 67 54 89

**Depitotal**

\*Balioko prezioa gehienez 4 saiotarako kontratatuta

## UZTURRETIK ▶ FELIX IRAZUSTABARRENA

## Martxoak 8



**E**makumeen Eguna izango da ostegunean. Emakumeek eremu desberdinetan lekua hartzen ari direla azalduko zaigu. Eta oso ondo dago, baina nahikoa al da?

Bertso mundua ezagutzen dut nik zerbait eta hortik jarri nahi nuke adibideren bat.

1975ean, beraz atzo, gai hauek jarri zizkieten bertsolarietara jaialdi handi ba-

tetan: «Lehengo zaharrek esana da, emakumearen ihes arbolara igoko ginala» «Senarra errespetatzen ez duen emazteari» «Aurten emakumeen urtea da. Asko hitz egiten da eskubideez, eta betebeharrak zer?» «Azkar usteko batek bere lantokian gizonezkoak bidali eta neska gazteak hartu ditu».

Ez dira oso aspaldiko gaiak, etzaigu okurritu ere egiten egun jarriko direnik. Orduan etzegoen emakumerik oholztan, ez kantari ez gai jartzten, eta gaur sartu da bertso plazara, moldatu da plaza horretara, baina hango joko arauak, diskurtsoak, pertzepzioak ez dira guztiz aldatu (egia da aldatzen ari

direla, eta horretan kontzienteki lanean ari dela jendea).

Gai batetan etxeoandrea gehiengotan etorriko da ardura, erantzukizunarekin lotuta. Zuzendaria, politikoa edo langilea aipatzen badira, automatikoki gizonezko bat irudikatzen dugu eta askotan bertsolariak hortik kantatu edo entzuleak hortik entzuten du.

Niri gertatu zitzaidan Zegaman. Maialen Lujanbio baserritar bat zen errege eta printzeen arteko gai batetan eta nik, berak nahita hala markatu zuen arte, baserritar hori gizonezkoa ikusten nuen. Orduan kontatu zidan Maialenek batek baino gehiago aipatu

ziola txapelketako gai baten inguruan «oso ondo aitoren horretan...» Gaiak jubilatu moduan kokatzen zuen Maialen eta berak amona irudikatzen zuen, baina jendeak, eta kantatzen zuen ahotsa femeninoa izanda ere, gizonezko bat ikusten zuen paseatzen.

Gai asko gutxitan azaltzen dira, edo topikoekin lotuta doaz; gizarteak markatzen dituen roletan oinarrituta gehienbat. Rol horiek kanbiatu behariko dira, eta gaiak ere bai. Ari dela ueste dut.

Emakumea sartu da hainbat eremuetan, leku bat hartu du askotan, baina lehen gizonezkoen jokamoldeetan antolatutako leku hori aldatu egin behar da, aberastu. Denon lana da eta denok irabaziko dugu.

## ARGAZKI ZAHARRA ▶

1936ko  
'La Estellesa'  
autobusaren  
istripua

**Erredakzioa** ▶ Nork ez du bide hau ezagutzen? Zenbat aldiz igaroko ziren Tolosara doazen nahiz Tolosatik irtetera doazen milioka autok? Bada, egun oraindik ere argazkian ageri den paretak zutik dirau, Tolosako Olarrain auzoaldera abiatuta dagoen errepidean. Trenaren ibilbide paraleloa hartzen du errepide horrek. Badirudi, ordea, 1936ko urtarrilaren 14an *La Estellesa* autobus konpainiako —gaur egun ere ezaguna dena— gidariak ibilbidea ez zuela hain zuzen hartu, zertxobait okertuko zen, eta ia-ia Oria errekan amaitu zuen. Ziurrenik ez zuen egungo autoen abiadura hartuko baina argi dago huts egiteren bat izango zuela. Ez dakigu nola aterako zuten, ordea, autobusa hortik, ez ezta lortu ote zutenik ere. Hori hurrengo baterako geratu behariko du... JESUS ELOSEGI, 'ARANZADI-LAZKAOKO BENEDITARREN ARTXIBOA'

hitza

Harpidedunen  
txokoa

HITZAKo harpidedunen artean **Astelehenean 16:30ean Beotibar pilotalekuan** jokatu diren pilota partiduetarako sarrerak **zozkatu** ditugu! **Hauek dira irabazleak:**



aspepelota.com

- ▶ Garbiñe Lizarraga Lazkano (Leitza)
- ▶ Angel Munduate Artola (Tolosa)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

**Galarza V - Urberuaga**  
**Berasaluze IX - Elkoro**

|| || || || ||

**MTZ. DE IRUJO - NALDA III**  
**CHAFEE - BARRIOLA**

|| || || || ||

**Baleztena - Auxkin**  
**Apezetxea - Apeztegia**

**EZBAIAN** ▶ Hilaren 8an, asteazkenarekin, Emakumearen Nazioarteko Eguna. Askok festarako aitzakia hartzen duten eguna aldarrikapenatarako dela ezin daiteke ahaztu eta urteko beste 364 egunetan ere kalera atera behar dela berdintasunaren bidean: Bilgune Feministak egunaren gaineko iritzia eman du

OIHANA LOPETEGI, EIDER ELDUAIEN ETA MARIA GARZIA (BILGUNE FEMINISTAKO KIDEAK) ▶

## Ikaslea, etorkina, langilea, heldua, alarguna, lesbiana, sindikalista, ekologista, nekazaria, artisaua, gaztea... Emakumea

**P**rekaritateak emakume aurpegia du. Lan mundura aspaldi sartu baginen ere, lan esparruen sexuen araberako banaketak bizirik dirau. Lanbide Heziketan ikasketa («maskulinoak») aukeratzen dituzten emakumeek ez dituzte praktikak egiteko enpresak aurkitzen, nahiz eta unibertsitateetako ikasleen artean emakumezkoak gehiengoak izan.

Lanik prekarioenak, gaizki ordainduta-koak, zaintzarekin zerikusia dutenak... emakumeon eremua izaten jarraitzen dute. Horri eremu pribatuko ardurak ere gehitzen badizkiogu, lanaldi bikoitzak eta hiru-koitzak sortzen dira eta errealitate bat dira gure egunerokotasunean, kontziliazio politikoaren porrota argi islatzen delarik.

Zer esanik ez, emakume izateaz gain, zapalduta dagoen kolektibo bateko partaide bazara. Egoera ere gehiago okertzen da etorkina, heldua eta etxeokoa... bazara. Paperekin edo paperik gabe, emakume etorkinek gutxien baloratutako lanetan aritzen dira, nahiz eta beste ikuspuntu batetik, guretzat arlo garrantzitsuenetarikoa izan (haur eta helduen zaintza, hezitza...) eta gainera soldata negargarrien truke.

Emakumeon aurkako indarkeriak sexuen arteko harreman hierarkikoak bizirik diratuela adierazten digute. Iazko eraiketa kasuak behara egin duten arren, erasotzaileen adin gazteak eta erasoetan erabiltzen den bortizkeriak gure kezka areagotzen du. Jai eta aisi eremuetan, ikastetxe eta gazte guneeetan ematen diren bortxaketa kasuen gorakadak, emakumeok aske eta segurtasunez ibiltzeko aukera ekiditen dute.

Ez gara gure gorputzaren jabe eta ezin dugu beronen gaineko erabaki askerik hartu. Adibidez, Euskal Herriko administrazio antzietan erabiltzen diren aitzakia desberdinengatik emakumeok ezin dugu abortua bezalako gaietan libreki erabaki.

Osasun zerbitzuek ez dituzte emakumeon osasunarekin zuzenki lotuta dauden zerbitzuak beharrezko kalitate minimoa



ziurtatzeko moduan ezartzen. Eta emakumea ez da osasun ikerketen objektu eta subjektu.

Sistema patriarkala lan mardula egiten ari da emakumeok betidanik bete dugun bigarren mailako herritar papera betetzen jarrai dezagun. Beharrak bultzatuta gutxieneko kontzesioak egitera iritsi badira ere, gobernu, instituzio eta erakunde atzerakoiek ez dute kontutan hartzen sistema sozial osoa eta inoiz ez dute isilpean egiten den emakumeon lana errekonozituko, ez eta eraldatzeko biderik ezarriko.

Are gehiago, Euskal Herriko lurraldeetako gobernuak eta alderdi politikoetako ordezkariak diskurtso eder eta erakargarriak egiten dituzte emakume eta gizonen eskubide berdintasuna aldarrikatuz. Berau lortzeko lege eta plan ugari sortu dituzte beraien lana zein antolatuta eta ongi egin duten erakusteko; ondoren garatzeko aurrekonturik ez duten ekimenak. Horrela, emakumeon egoera ez da inolaz ere aldatuko.


Emakumeok ez gaude besteek gure es-

### GOBERNUEN PAPERA

«Politikariek ondoren garatzeko aurrekonturik ez duten ekimenak aurkezten dituzte; horrela egoera ez da inolaz ere aldatuko»

### TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Emakumeen Nazioarteko Eguna: Uste duzu berdintasunean bizi direla emakumezkoak eta gizonezkoak egunerokoan?



Ez □ %81  
Bai ■ %19

kubideak noiz aitortuko zain, instituzioetatik abiatutako neurri antzuek ez gaituzte konbentzitzen. Sexuen arteko harreman bidezkoetan oinarritutako Euskal Herri askea eraikitzeko bidean guk tresna berriak sortu eta borroka egingo dugu errespetatuak izan daitezten.

Hori dela eta, idatzi honen bidez, udaberriari onartuko dugun Euskal Herriko Emakumeon Eskubideen Gutunaren berri eman nahi dizuegu. Emakumeok gure beharrian eta eskubide hutsuneen inguruan eginiko eztabaidaren ondorioa izango den dokumentua. Borroka feministaren norabidea eta aldarrikapenak birkokatze-ko oinarri sendoa ezartzeaz gain, emakume guztiok biltzen gaituen instrumentua izango da.

Beraz, emakumeoi prozesu honetan parte hartzera dei egiten dizuegu (martxoaren 7an emakume batzarra izango da) eta ez ahaztu martxoaren 8az gain, beste 364 egunetan ere kalera irten behar dugula, herritar orok eskubide eta aukera berdinarak izatea nahi dugula aldarrikatzeko.

Bestalde, Tolosaldeko Bilgune Feministak herritar eta eragile guztiei dei egiten dizuegu, guztiok batera Euskal Herri berri eta justuago bat sor dezagun, Euskal Herri feminista.

Besteriak gabe adi datozen egunetan egongo diren mobilizazioetara. Zeu ere mobilizatu zaitez!

NOELIA LATABURU  
(HITZA-KO ZUZENDARIA)

## Lanean jarraitu behar da

**L**ehengoan emakume bati entzun nion, ahoa zabal-zabal, emakumeek bakarrik gizezkoek baino hobe aginduko eta zuzenduko genukeela; historiaurretik hona emakumearen papera ezinbestekoa izan dela eta hala izango dela. Emakumeek ez dutela gizonen beharrik. Baina hitzak haizeak eramaten omen ditu. Horregatik hitzetatik ekintzatarara igarotzea beharrezkoa da.

Izan ere, datuek eta egungo emakumearen egoerak bestelako errealitate bat erakusten dute. Martxoak 8: Emakumearen Nazioarteko Eguna. Emakume guztien eguna. Baina, zer ospatzen da egun honetan? Aldarrikapenerako eguna da, lanean jarraitzeko eguna. Berdintasuna lan munduan ez ezik, kultura eta kirola bezalako alorretan ere lortu behar delako, esparru sozial guztiatarabalduz. Eta horretarako lan handia dago oraindik egiteko.

Emakumeek gero eta formakuntza handiagoa dutela erakusten dute datuek (karrerara unibertsitarioak), baina oraindik ere lan munduan berdintasuna urrutu dago. Berdintasunaren diskurtsoa barneratuta duen gizartean bizi gara, baina errealitateak, azken batean, aurkakoa erakusten digu. Ez gaituzten ospakizun hutsean geratu eta martxoaren 9an ere lanean jarraitu beharko dugu guztiok.

HILBERRIAK  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
HITZAN jarri eta Gipuzkoako  
beste 4 Hitzetan DOAN  
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

### hilberriak ▶

#### Juana Anttoni Garmendia Lopetegui

ANDREA

(Martin Arreguiaren alarguna)

ATZO hil zen, 78 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

Argi bat itzali da  
hemen lurrean.  
Beri ba piztu da,  
han, zeru ederrean.  
Beti jarraituko duzu  
gure bihotzean.

Koro eta Angel, Shekun eta Koldo

BELAUNTZAN, 2007ko martxoaren 4a



### hilberriak ▶

#### Juana Anttoni Garmendia Lopetegui

ANDREA

(Martin Arreguiaren alarguna)

ATZO hil zen, 78 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

Bapatean joan zara  
gure amona maitea  
haundia izango da  
utzitako hutsunea  
gogoa izango zaitugu  
ezinezko zu ahaztea  
nozibait iritsiko da  
denok elkartzeko una

Belauntzako sendia

BELAUNTZAN, 2007ko martxoaren 4a



LEABURU • KULTURA

# Kolorez jantzitako hormak

Hogei urte eta gero Leaburuko Tfontorpe pilotalekuko lanak bukatu dituzte; plazari bizitasuna eman nahian, kanpotik pintatzea bururatu zitzaizen Udalekoiei



Plaza aldetik begiratuta Tfontorpe pilotalekuak duen ibura. Gure mundua azaldu nahi izan dute. **HTZA**

### ENERITZ MAIZ

Leaburuko Tfontorpe pilotalekua 1985. urtean hasi ziren egiten eta urte batzuk pasa ostean, erabat bukatu dute. Pixkanaka egin dituzte obrak. Aldizkari emandako diru laguntza eskasak direla eta. Lehenik pilotalekua egin zuten baina arkuak estali gabe egon dira urte luzez. Herriko alkateak adierazi duenez idena irekia egotean, eurria sartzen zen eta neguan beti husta egoten zenez, ezin zen ezertarako erabili. Orain, dena kristalez tapatu dute; argitasuna sartzea galarazi gabe eta eta berean, pilotalekuari goxotasuna emanaz. Honela, pilotalekua erabiltzeko dago urte osoan zehar. Baina, hau guzti hau egin eta gero, kolore pixka bat falta zitzaioala ikusita, pintatzea bururatu zitzaizen Udalekoiei, iberrit gurtzetan dauden pilotalekuak bunker erraldoiak dira eta guk beste aldatasun bat eman nahi genon plaza ingururari. Arkaitz Uranga eta Eider Epelde ibartar gurtzetan esku utzi zuten pintatzea lana. Ainhoa Olaberria hernaniarraren laguntza ere izan dute. Angel Arropide herritarra azaldui behar zuela pintatza izan zen. Jarri zieten baldintza bakarra. Udalek esan dutenez, edena berarekin egin dute eta herritarrek eta gu oso gustura gaude egin dute lanarekin.

### ARKAITZ URANGA ETA EIDER EPELDE • MARGOLARAK

## «Lekuak era honetara apaindu daitezkeela erakutsi nahi dugu»

Arkaitz Uranga (Ibarra, 1978) eta Eider Epelde (Ibarra, 1979) margolariak izan gara Leaburuko pilotalekuan egin dituen lana dela eta. **Nola edo nolatan hasi zineten margotzea?** Eider Epelde. Umetatik gertatu izan zait niri margotzea. Amak beti esan izan dit margotzen oduk pasatzen nituela. Gero, diseinu grafiko ikasketak egin nituen eta nere lehen murala Ibarra sarreran presoen alde egina dagoena da. Ikasketekin lotuta lana ateraziziduen eta pixka bat lasaigo hartu nituen gara. **Arkaitz Uranga.** Niri ere dukitak datorkit zaleatasuna. Eskolako mahaiaren ez bazen, koademo edo liburuan marrazten nuen. Muralak ere hasia nintzen zerbait margotzen baina Eider esagutu nusean sartu nintzen benetan mundu honetan. Aralar kirolak-eko denbora bertan margotzeko eskatu zitoten eta bera lanean zebiltzen denbora gutxi zuen eta ni momentu horretan lanik gabe neopenez, elkarrekin margotzen genuten eta hori izan zen batera egin genuen lehen lana. Nik oraindik koloreak nahastuzen eta dena ondoko ateratzen eta garbi ikusi nuen honetan egin nahi nuelan. **Era honetarik bizi zurelako?** A.U. Denboraldi batean bai. Gurasoekin bizi nintzen eta ni-



ENKERT MAIZ

retzako adina irabazten nuen. Gerotik, pintura orokorrean ere sartu naiz eta harrigarren imitazioa eginen ikasi dut. Oso ondo etorri zait gauza asko ikasi ditudalako. Egin beharreko guztia guk egin dugu zeren garrantzi handia dute erabiltzeko behar diren materialek eta Leaburukoak irauten egongo du. Muralak hain eta hementegonez asko ikasi dut eta orain biak batera eginetz bizi naiz. **E.E.** Jada boost urte daramatzat

diseinu grafikon lanean baina oraindik ere Leaburuko besalako lanak ateratzen direnean gustura egiten ditut. Eta bestalde prestatu behar diren ziri-borroak egiten ditut ordenagailuz. **Nola hasi zineten Leaburuko pilotalekuan proiektua?** A.U. Oso urduri. Proiektua oso handia izango zela benetaren eta ondorengi nahi nuen. **Nola pintatu erabiltzeko eskatu zineten?** A.U. Zatia dena ikusi zuten da. Behin pintatu beharreko garbi eduki gero, erraza da. Margotzen badakigu eta hori erraz egiten dugu. **E.E.** Lehenik ziri-borroa bat egin den duza baina gero margotzen zozaren behean gauzak aldatzen zoz. Ez da ziri-borroaren guztiz berdina baina, ziri-borroaren erdian oso gauza garrantzitsua da. Eta zaila dena ziri-borroa iristea da. Pertsona bat baldin bada hainbeste, baina bi izanda zailagoa da,



Angel Arropide. Alkalarari eginiko omenaldi da. Itxeraren arrazirik bere giza orakusten du; altxoraren makila bai baina buruzko zatia ez du bere bikain, ondoko hiru lauki horiek hartzen dute bere tuka. Baruko leorak Gipuzkoako amarraren dauden agina eta erreka izaltzen ditu. **HTZA**



Arkaitz eta Eider lanean. Ia hilabete behar izan zuten Tfontorpe pilotalekuko lana bukatzen. Aldiz, hiru pertsona izateko behar izan zuten. **HTZA**



Behoko zatia. Besebengandik banandu egiten da. Plazari dagozkoen gauek dira; urteak jolasean (gordetzan), kirolak (poltka, jokasakia, futbola) akelarrea, festa... **HTZA**



Bi muralen bat egitea. Ur-jazirean bidez kolore eta forma ikuriztatuz nahastu dira. Margolarak bi munduen banaketak eta ezberdintasuna adierazi nahi du. Bertan, izarrak (kerroa), pertsona handia, amarrak (gozeta eta emakume)... **HTZA**

nahiz eta aberesgarriagoa ere baden. Aldiz, hiru pertsona izateko behar izango izan zuten. **Margotzen duzue oraindik?** E.E. Aizate batetik harria dago eta bestetik, pintura. Bien artean badago diferentzia. Baina marrazketa margotzeko orduan bakoitzak bere estiloa du. Zumea eta Epelde asko gustatzen zaitzigu eta hori nabaritzen da. **A.U.** Hori bakoitzari ateratzen zaitona da. Dena brotxaz egin dugu. Artistaia izatea nahi zutela izan zen esan zidaten gauza bakarra, eta bertan Angel Arropide agertu behar zuelak, gaitortzeko guztia gure kontu. **Era honetarik bizi zurelako?** E.E. Lehenik ziri-borroa bat egin den duza baina gero margotzen zozaren behean gauzak aldatzen zoz. Ez da ziri-borroaren guztiz berdina baina, ziri-borroaren erdian oso gauza garrantzitsua da. Eta zaila dena ziri-borroa iristea da. Pertsona bat baldin bada hainbeste, baina bi izanda zailagoa da,

borro bat egin nuen eta Arkaitz ez zitzaion gustatu eta niri pila bat. Ordenagailuz egiten ditut eta esaten nuen, nik egin nuela eta berak ez. Buruan duena esan behar izaten dit gero nik ziri-borroa prestatu ahal izateko. **Azki bedetako, zer omenaldi du marraztu duzunak?** A.U. Gurea ezinezkoa izenez, koa liburtzen da eta neurri-batean berezitasun guztia kenduko lioke. Bertarazten den jende ororen lana ere bidealako murala argitzea. Baina gehienbat inguruan ditugun gauzak eta guk sartu ditugu. **E.E.** Hiru zaitan banatu dugu pilotalekua. Muralik handiengan, gure mundua azaldu nahi izan dugu; natura, eskualdeko kirolak, politika, dantza, munduaren desoreka... Goko zatia, beharrezkoak izaten den lekuan, ur-jazirean bidez bi munduen banaketak eta ezberdintasuna izaltu da. Behoko zatia ordea, banandu egiten da. Bertan plae-

zari dagozkoen daude; umek jolasean, kirolak, akelarrea, festa eta Arkaitzek esan moduan, hemendik aurrerako bakoitzaren hausnarketa izango da. Eta zutabeetan eta arkuekin dagoena hareharraren imitazioa da. **Era ner da Margotzeko etorri duen kontua?** A.U. Bai, neska bat etorri zen bere aitaren Euskal Herriko muralen inguruko tesia egitera. Gurekin egin ziren eta bertan ere dabilkotan geratu ziren baina oraindik ez dugu beste berririk izan. **E.E.** Nonbait Beñatiz hasia margotzea egotea espero zuten eta ia ez zutela ez aurkitu esan ziduten. **Konsumo erretrik zela lan egin dituzte?** E.E. Ibarroko sarreran dagoen presoen aldekoa. Subejein berdina. Ameriketan eskolako frontoia, Irura, Ibarra eta Anoetako Gaztetxeak... **A.U.** Mesaki eta Arkaitz: azpi-

tabernak, Lizartzako Euskal presoena, Aralar kirolak, Lizartzako eta Belantzeko Gaztetxeak etorriko dira. **Hiru lan da egiteko duzun lekuak?** A.U. Bai, niretzat bai. Ziri-borroa prestatzen niri aste pasagutuen eta gero margotzen ere hiru-lau aste behar izan genituen. Eta gainera, behoko zatia egin Ainhoa Olaberria hernaniarrak lagundu zigun. **E.E.** Ibarroko Gaztetxean ere denbora bera pasa genuen. Ziri-borroa egitea kosta zitzaigun gu bion gain Gaztetxeo jende guztia baitzegen. Eta nik bakarrik egin nuen Anetoiko Gaztetxea eta lan handia izan zen. Baina, kasu honetan, gehiena Arkaitzek egin du, nik mural batzuk bakarrik, Aldamio gainean ibiltze hori... **Era nerda omen nola duzue margotzeko?** E.E. Orain arte etxe guztia tratu eginezko efektuekin pintatuta eduki dugu. Baina, duela gu-

ti Alzora joan gara bitziera eta dena simple-simple pintatu dugu. Simple izan arren, kolore politikoki konbinatuak. Ezen mural bat pintatuko bazu, eguneroko ikuslari nuke eta urtebetetako aspertu eta aldatu egin nahiko nuke. Leaburura urtean best alditu joan naitake eta beti polita irudituko zait. **A.U.** Gustatuko litzazalduke baina denbora gutxi dugu momentu honetan. Bestela ere, nahisago izaten dut lagunen edo anaien etxean egin. **Auzura degira deuta proiektuak?** A.U. Leaburuko dela eta lan bertatik atera zaitzkit eta esker-tu beharrean gaude Leaburuko Udalarik honelako proiektua aurrera eramateagatik. **E.E.** Iruditzen zait leku askotan dauzela paretak tristeak kolore pixka bat hartuko luketena. Ez da guri lana emateko gaitik baina, lekuak era honetara ere apaindu ditezkeela erakustea gustatuko izanagizki. **HTZA**



VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

# Danena-Olaederrako guztiak sailkatu dira Espainiakorako

Eskualdeko taldeko seiak joango dira Madrilera, atzo Euskadiko Txapelketan lortutako puntuazioari esker



Kelian Quintana ezkerrean, eta Isan El Oikili, Danena-Olaederrako pultsulariak. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Villabonako Olaederra kiroldegian Euskadiko pultsularien Txapelketa jokatu zuten atzo, alebinen eta infantilen mailan eta eskola mailako teknika modalitatean. Honetan Danena-Olaederra klubak parte hartu zuen eta baita Espainiako Txapelketarako sailkapena lortu ere. Izan ere, 96. urtekoen artean Asier Gallego zizurkildarra irabazi zuen, bigarren Yerai Franzisko izan zen eta hirugarren Isan El Oikili zizurkildarra.

95. urtean jaiotakoan artean lehenengo Cristian Azkona eta bigarren Unai Calvo zizurkildarra izan ziren, eta 94. urtekoen artean, berriz, lehenengo Jabier Rubio eta bigarren Adrian Sasiain zizurkildarra. Beraz, lehenengo postuen artean izan ziren gehienak.

Bi modalitate egin zituzten: arrankada eta denbora. Hauek Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako pultsulariak hartu zuten parte, guztira 19 infantilek eta alebinek. Hauetatik 9 joango dira Espainiako Txapelketara, hilaren 30ean: Asier Gallego, Isan El Oikili, Igor Galludo, Unai Calvo, Adrian Sasiain eta Kelian Quintana. Batis Kortajarena prestatzaileak «maila altua» azpimarratu zuen.

ANOETA ▶

## Kultur Astea bihar hasiko da ipuin kontaketaekin

Helduentzako gorputza gehiago ezagutzeko tailerra ere antolatu dute

ERREDAKZIOA

Anoetan Kultur Asteari hasiera emango diote bihar. Egitarau oparoa prestatu dute aurten ere, hilaren 5etik 10era bitartekoa izanik.

Bihar, ipuin kontaketa izango da 18:00etan, Pello Añorgarekin, liburutegian. Apropoza izango da 4 eta 7 urte bitartekoentzat.

Etzi, dantzari eta kirolari egin diote tarte bat: izan ere, aerobik eta batuka antolatu dute umeentzat. 18:15etik 19:30era izango da, doan.

Asteartetik hilaren 21a bitarte eskualdean hainbat herritan ikusgai izan den *Hondakinak: ametsgaiztorik ez!* erakusketa izango da kiroldegian. 10:30etik 12:30era eta 15:00etatik 21:00etara izango da hau ikusteko aukera, astelehenetik ostiralera. Larunbatetan ere bisita daiteke, 09:00etatik 13:00etara.

Helduentzat proposa

Asteazkenean helduei zuzenduriko ekitaldi bat prestatu dute: 15:00etan bi orduz *Gure gorputzarekin bat egiteko espazioa* tailerra izango da kiroldegian. Honetan, arrasketak, dinamikak, jolasak edota lasaitzeko ariketak egingo dituzte. Bizi ditugun garaietarako oso aproposak diren ekintzak dira, ezbaierik gabe. Gainera, doan da eta izena kiroldegian eman behar da asteartea baino lehen. Ostegun eta ostiralean ere ekitaldiak izango dira.

LARRAUL ▶ PILOTA

## Aiztondo X. Topaketan, hiru partida

N. Urbizu ▶ Larraulgo pilotalekuan atzo Aiztondo X. Pilota Topaketen lehenengo partidak izan ziren. Bost ziren jokatzekoak, baina bi bikotek kale egin zuten. Azkeneko partidari Larraulgo bikote bat (urdinez) eta Alkizako beste bat (gorriz) izan ziren, alebinen mailakoak. Alkizako, Larraulgo, Zizurkilgo eta Adunako pilotariak ariko dira maiatza arte jokatzeko. N. U.



iragarki laburrak ▶

**LANA****Sukaldaria eta zerbitzaria.**

Asteburuetarako sukaldaria eta zerbitzaria behar dira.

615 78 90 06.

**Garbitzailea.** Garbiketa, mantenua,

gidariak, langileak, sukkladaritza langileak... Behar dira inapostu finkoak betetzeko.

943 29 82 32.

**Gidaria.** Erakunde publikoetarako gidaria behar da. 943 44 48 66ra.

**Harreragilea.** Harreragilea behar

da erakunde publikoetarako.

943 44 48 66.

**Suhiltzaileak.** Suhiltzaileak, basozainak, Ertzaintza, udaltzaina. Erakunde publikoetarako hainbat deialdi. 943 32 66 63.

**Hezkuntza.** Eusko Jaurlaritza. Berehalako deialdi. 1.172 lanpostu gorputz-hezkuntza, haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, ingelesa, euskara, musika, ALE, PT eta aholkularitza.

Informa zaitez. 943 29 82 32.

**Tabernaria.** Neska euskalduna

behar da tabernarako. Astelehenetik ostiralera, 15:30etik 22:30era, larunbat goizetan lana eta igandeak jai. Telefona: 650 48 79 34.

**SALGAI**

**Autoa.** Renault Express-a salgai. SS-AV. 1.500 euro. 620 036 749.

**BESTEAK**

**Zakurra.** Urtebeteko Cocker arrazako zakurra oparitzen dut. Telefona: 645 00 56 83.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

KULTURA ▶



## Liburuetako pertsonaiak kantuan

**E. Ezeiza** ▶ Gutxitan izaten da Tolosan haurrentzako musikalak ikusteko aukera, eta atzo izan zen horietako bat. Roseland Musical-en *Las Mil i Una Nits* haurrentzako dantza ikuskizuna izan zen atzo Leidor antzokian. Istoriok kontatzen duenaren arabera, Magin hirian geratzen den liburu denda bakarra da, baina hau informatika denda bihurtzeko arriskuan dago. Hori ikusita, liburuetatik ateratzen dira barruko pertsonaia guztiak. **E. EZEIZA**

AZOKA ▶

## Martxoaren hasieran eguraldi ezin hobea

Jende ugari ibili zen kalean eta azokan atzo, giro polita nagusituaz herrian

PABLO ALBERDI

Atzoko eguna epela eta ederra suertatu zen Tolosan. Oso giro polita paseatzeko eta azokatik betiko bueltatxo egiteko. Giro polita ikusi genuen plaza erdian, eta dirudienez eskaintako produktuek harrera ona izan zuten.

Ez da harrizkoa, zerrenda oso zabala eta kalitate handikoa izan baitzen. Barazkien artean aurtengo lehenengo baratxuriak eta tipulnak nagusitu ziren, eta fruta zerrendan errezil sagarra izan zen nagusi.

Berdura plazan ere oso landare zerrenda betea ikusi genuen. Egundoko aukera, eta zaindutako kalitatea landareen artean. Kameliak, alegriak edota klabelinak izan ziren nagusi atzo Tolosan.

### ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Azalea	5,00	8,00
San Juan lorea	1,50	-
Erromero	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20

<b>Bertako produktuak</b>		
Errezil sagarra	0,60	8,00
Kiwia	3,00	-
Intxaurra	2,50	4,00
Kalabaza	1,50	3,00

<b>Beste gaia</b>		
Baraturia	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00
Mermelada	3,00	3,60
Aza	2,50	3,00

### LAN ESKAINTZA

Trintxera Hotel jatetxean urte osorako ZERBITZARI bat behar da. LAN FINKOA eskaintzen da.

Interesa dutenek deitu

**943 681 206**

telefono zenbakira

**ERREZIL**

NATURA ▶

# Ingurugiro eta zuhaitzekiko errespetua izaten irakatsiz



Paper berziklatua egiten ikasi zuten atzo ikasleek. **E. EZEIZA**



80 zuhaitz landatu zituzten atzo, Usabaleko eremuetan. **E. EZEIZA**

## Zuhaitz eguna ospatu zuten atzo Tolosako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek

ESTI EZEIZA

Urte garai honetan, ohikoa den bezala, udaberria iragarri, Zuhaitz eguna ospatu dute Samaniego, Hirukide eta Laskoraingo ikasleek. Ekintza hau Zuloaga Txiki ingurumen eskolak antolatzen du urtero, Udalaren laguntzarekin. Jardunaldi hauen helburua zuhaitzei omenaldi txiki bat egitea da eta ingurugiroa zaindu behar dela irakastea.

Atzo, goizean goiz, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako 90 ikasle inguru bildu ziren Laskorain ikastolan lanari ekitiko. Hala, sei taldetan banatu ziren eta txandakatuz, ekintza ezberdinak egiten joan ziren goiz osoan zehar. Hasteko, batzuk Inauterietan landare batzuei egindako kalteak konpontzen aritu ziren. Izan ere, iaz landatutako zuhaitz batzuk indarrez atera eta puskatu zituzten duela bi aste. Horregatik, atzo, aurrekoak zeuden toki be-

rean beste batzuk landatu zituzten. Eremu horretan nahiz Usabal kiroldegiko inguruetan egin zituzten landaketak ikasleek, denera 80 zuhaitz sartu zituztelarik. Bitartean, beste ikasle batzuk, ikastolan kokatuta zeuden tailerretan, hainbat gauza egiten aritu ziren: paper birziklatua eta erromero alkohola egiten, puzzleak osatzen, herritarren iritzia biltzen... Jardunaldien amaieran, lore bana eman zieten parte hartu zutenel.

Atzokoia izan bazen ere jardunaldi hauetako egunik garrantzitsuena, astean zehar ere ingurugiroarekin loturiko beste hainbat ekintza burutuko dituzte gaztetxoek. Esaterako, Eskolapioetakoe Zuloaga Txiki-ko sagastia kimatuko dute, Jesuitinetakoe Izaskun auzoan atzoko zuhaitzak landatu dituzte, hesi akustiko bat eratu. Eta azkenik, Samaniego eta Laskoraingoek zuhaitz ezberdinak landatuko dituzte.

**Haur hezkuntzako**  
enpresa batek lan poltsa osatzeko  
**hezitzaileak eta garbitzaileak** behar ditu.  
Curriculumak **tolosa 289** Posta Kutxara bidali

**ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko martxoaren 4a, igandea ▶ V. urtea**

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **17** hotzena **11**

BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (balantza argizteko, harpidetuen egileko...)

**902 82 02 01**

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Beotibarren Aurrera-Saizak Berria Txapelketan jokatuko dituen hiru partidak izango dira igandean: arerio Irurtzun izango du, eta hiru partidak jokatuko dituzte, 16:30etik aurrera.

**Tolosa.** Behar Zana elkartearen urteko asanblaea 09:30ean (bigarren deialdia 10:00etan). Bazkideen presentzia eta parte-hartzea eskatzen du zuzendaritza taldeak.

**Tolosa.** Bihar, agerraldia egingo du Tolosaldeko Bilgune Feministak Kultur Etxean, 19:30ean. Ondorengo gaiak azalduko dituzte: Martxoak 8, emakumeon nazioarteko eguna, Bilgune feministaren irakurketa eta mobilizazioa eta emakumeon eskubide gutuna.

**Tolosa.** Bihar, 19:00etan, eskualde mailako bilerarako deialdia egin dute AHT Gelditu! Elkarlanean taldekoek, AHTri buruzko informazioa nahi izanez gero, bilera irekia da.

**Villabona.** EBEL Emakume Baserritarren Elkartearen batzarra izango da Gurea zineetan, 11:30ean.

# Antzerkian heziz

**TOLOSA ▶ Laskorain ikastolako ikasleek Donostian izan dira 'Dejame entrar' antzerkia ikusten**



Donostian ikusi zuten antzezlaren une bat. HITZA

**ERREDAKZIOA**

Laskorain Ikastolako LHko 6. mailako ikasleak Donostiako Santa Teresa ikastetxean izan dira *Dejame entrar* antzezlana ikusten. Transeduca hezkuntza zentroak antolatutako ekitaldi honen bidez lagunarteko harremanak landu dituzte. Urubu antzerki talde katalandarrak eskainitako antzezlana bullying-a edo bazterketa du gai nagusizat eta ondorio gisa proiektu bat aurrera atera ahal izateko taldean denok beharrezkoak gara adierazten du. Antzezlaren ondoren eztabaida izan da eta gelan Tutoritza gaian landu dute gaia. Gainera, ekitaldi honen edukioa sin fronteras Gobernu Kanpoko Erakundea lagundu dute.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *El ilusionista* filma emango dute asteburuan Leidor zinemaren aretoan: gaur 19:30ean eta 22:30ean eta bihar 20:30ean.  
**Leitza.** Sofia Coppola kuzendutako *Maria Antonieta* pelikula ikusgai 19:30ean izanen da.

**GUARDIAKO FARMACIAK**

**Gaur**  
 Irurtzun. Gastearena, M. Amaia kalea, 4. 112.  
**Tolosa.** Aspiroz, L. Amaro auzoa, 9. 943 675118.

**Bihar**  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi ebrea 112  
**Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Hitza hegan.* (Errepikapena).

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA**  
 IKAS KOMUNITATEA

**PEDRO M<sup>a</sup> OTAÑO HERRI ESKOLA**

Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - ZIZURKIL  
 Posta elektronikoa: 012041aa@hezkuntza.net

**Laskorain Ikastola**  
 zure aukera

www.laskorainikastola.net

**Kalitatezko heziketa euskalduna eta eleanitza**

**JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA**

— 2-16 urte bitarteko hezkuntza —  
 Villabona eta Zizurkilgo ikastola

- Euskalduna eta eleanitza • Kalitatezko Hezkuntza
- Esperientziaduna

943 69 23 21 (Berria, 49 • Villabona)  
 943 69 20 58 (Txermin auzoa • Villabona)  
 943 69 12 75 (Elbarrena auzoa • Zizurkil)

billabona@ikastola.net

**AGURRAK ▶**

**URTE ASKOAN**  
 Ugaitz Aizpitarte Tobar (Alegia). Bihar 2 urte. Etxeko eta bereziki Maddiren partetik.

**VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA**

**JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA**

**Fleming Ikastetxea.**  
 Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)  
 Lehen Hezkuntza Arraztainen (6-12 urte)  
 Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 691413  
 012277aa@hezkuntza.net

**Erniozea B.H.I. Villabona**  
**Erniozea Ikastetxea.**  
 Derrigorrezko Bigarren hezkuntza  
 Arraztainen (12-16 urte)  
 Tel.-faxa: 943 69 37 33  
 012952aa@hezkuntza.net

Matrikulazio epea:  
 Otsailaren 26tik  
 Martxoaren 9ra

**TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA**

Telefonoa: 943651063  
 Posta elektronikoa: 012244aa@hezkuntza.net

- HAUR HEZKUNTZA (2 URTETIK HASITA)
- LEHEN HEZKUNTZA

**D EREDUA - KALITATEZKO IRAKASKUNTZA**

MATRIKULA EPEA: OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 9ra

Telefonoa: 943651387  
 Posta elektronikoa: 012980aa@hezkuntza.net

- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
- ZEREGINEN IRAKASKUNTZA GEA
- LAN HASTAPEEN EGOITZA
- BATZILERGAOK